



*13 langabe lan  
merkatura sartu  
dira*

/2. orrialdea

*Amaitu da  
aurrekontuetan  
parte hartzeko  
prozesua*

/3. orrialdea

*Trafikoa eta  
zirkulazioa  
arautzeko  
neurriak*

/5. orrialdea

*Muskiz, herri  
solidarioa  
Mexikorekin*

/6. orrialdea

## Editoriala

### Muskiz hobetuz

Egunean-egunean nirekin dudan lantaldearen lanari, sendotasunari eta lankidetzari esker iritsi gara urte amaierara hartutako konpromiso asko beteta ditugula, bai eta lanean jarraitzeko ilusioz beterik ere, Muskizek hazten jarrai dezan. Funtzionarioak, udal zerbitzuetako enpresetako langileak, elkarteak, auzotarrak, zinegotziak... denak dira ezinbestekoak konpromiso horiei guztiei erantzun ahal izateko.

*“Hartutako konpromisoetako asko beteta iritsi gara urte amaierara”*

Gure giza taldeak lan handia egin du, eta horretan ari da oraindik ere, Muskiz gero eta herri seguruagoa eta irisgarritasun handiagokoa izan dadin. Langabezia murrizteko ekimenak ere egin dira, eta, horretarako, hainbat toki-plan egin dira; ingurumenean, kulturean eta kirolean ere inbertitu da. Proiektu horietako batzuk amaitu badira ere, edo amaitzeko bidean badira ere, beste batzuk gauzatzen ari gara oraindik ere, Muskizek aukera berriak izan ditzan etorkizunean, eta, horretarako, parte-hartzean oinarritutako aurrekontuak osatzen ari gara datorren urterako. Muskiz hobetzeko ahalegin handia egiten ari gara urtea joan urtea etorri, baina zinez mezezi du. Egia da bidean zailtasun ugari izaten direla, baina, horiek gainditzeko, oinarri hartzen ditugu ahalegina, lan handia, zintzotasuna eta gardentasuna. Horregatik guztiatik, eskerrik asko zuen babesa eman diguzuelako denbora honetan guztian.

Gure etxeak zehar eta Gabonetako apaingarriz betetzen ditugun egun hauek bake eta lasaitasun egunak dira, eta itxaropena dut gogoeta egiteko eta gure sende eta adiskideen konpainiaz gozatzeko aukera emango digutela. Nire asmorik onenak ostertzean agertzen ari den urte berrirako.

Zorionak eta Urte Berri On!

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea



## Azoka egiten den aparkalekuko irlatxoak eraitsi dira

Muskizko Udalak eraitsi egin ditu asteartero egin ohi den azokako aparkalekuko irlatxoak, Meatzari Aretoaren atzealdean, hain zuzen.

erabiltzaileen premia berrietara egokitu da Udala, eta aparkalekuko hainbat eremu hondatu konponduko dira.

Aparkalekua berrantolatzeke eta margetzeko lanen ondoren, Udalak partzela gehiago eskainiko dizkie saltzaile ibiltariei, eta, horrez gainera, auzotarrek zein Udalera etortzen diren bisitariek aparkaleku gehiago edukiko dituzte. Egiten ari den lan horren zenbatekoa, guztira, 16.534,82 eurokoa izango da. Ekimen horren bitartez,

Lan nagusiak faseka egiten ari dira, auzotarrei eta inguru horretako oinezkoiei ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko helburuarekin. Hona hemen egiten ari diren lanak: lauzak, zola eta zintarriak txikitzea eta kentzea; aparkalekuko kale-argiak hormigoiaz, aglomeratuaz hornitzea, eta altzairuko babesak jartzea eta muntatzea.

## 13 langabe lan merkatuan sartu dira

Muskizko Udalak 160.000 euro baino gehiago erabili ditu lehentasuna emateko 13 herritar langabe lan merkatuan sartzeko asmoari. Denbora luzean langabezia zeuden herritarrek dira, inolako diru-laguntzarik jasotzen ez dutenak. 55 urtetik gorakoak eta emakumeak.

Kasu honetan, Enplegu Euskal Zerbitzuak 92.200 €-ko ekarpena egin du Muskizko udalerrian enplegua sustatzeko ekimen berri honetan, eta Udalak, berriz, 68.000 €-ko ekarpena egin du. Herrian egingo diren kontratazioen %30 Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titular direnei egin behar zaizkie, eta gainerakoak, talde hauen arteko: 35 urteko edo hortik beherako herritarrek, gutxienez 6 hilabetez lan eskatzaile gisa izena emana duten 45 urtetik gorakoak. Horrez gainera, kontratatutako pertsonen %40, gutxienez, emakumeak izan behar dute, eta %15, berriz, 55 urtetik gorakoak. Muskizko Udalak eta Lanbidek 160.000 euro erabili dituzte, guztira, %75eko lanaldian sei hilabete-

ko kontratuetarako; kontratu bat egin du %62,5eko lanaldirako.

Honako hauek dira Udalaren enplegu planean eskainitako lanpostuak: bi administrari tekniko, administrari laguntzaile bat, gizarte-ekintzako teknikari bat (emakume batek bete), hurbiltasuneko eta laguntzako bi laguntzaile. Horrez gainera, hirigintzako proiektuetarako teknikari bat, 2. mailako igeltsero ofiziala, lan publikoko peoi bat eta kaleko informatzaileen lau lanpostu ere eskaini ditu.





## Itxi da herritarrek 2018. urterako udal aurrekontuetan parte hartzeko prozesua

**M**uskizko Udalak parte-hartzean oinarritutako aurrekontuak osatzeko prozesua jarri du abian 2018ko ekitaldirako. Lehenengo urratsak azaroko 3 astez egin dira, eta Udalak herritarren partaidetzarako prestatutako bideen bitartez parte hartu ahal izan dute bertan herritarrek. Era guztietako 34 proposamenerantzun die herritarrek berriro ere; edonola ere, ia proposamen guztiek bide publikoarekin izan dute zerikusia. Udalerriko hainbat gunetan argiteria hobetzeko eta zolaketa lanei eta sarbideak, aisialdirako guneak, etab. hobetzeko lan txikiei buruzkoak izan dira ekarpen gehienak.

Muskizko herritarrek bidalitako 34 proposamenetatik, bide publikoa hobetzearekin zerikusia izan duten ekarpenak nabarmentzen dira nagusiki: auzoetan, aparkalekuetan, edo joko eremuetan... argiteria hobetzea; bide segurtasunean hobekuntzak egitea, espaloiak beheartzu edo zebra bideetan aldaketak eginez. Ingurumenaren alorrean ere egin dituzte muskiztarrek ekarpenak, aisiarako baratze eremu bat egiteko aukerarekin edo automobil elektrikoak sustatzeari buruzkoak, besteak beste; horrez gainera, hirigintzaren alorreko hobekuntzak hainbat auzotan, bideak zolatzeko, espaloi berriak egiteko edo eserleku gehiago jartzeko lan txikien inguruko beste hainbat.

Jasotako beste ekarpen batzuk zerikusia dute honako gai hauekin: garraio publikoa, kirola, Interneteko sarbidea hainbat auzotan, Las Acacias kalean automatikoki garbitzen den komun bat jartzeko aukera edo txakurrentzako parke bat udalerrian.

Postontzietan zein Interneten gaitutako webguneetan utzitako proposamen guztiak jaso ondoren, udal zerbitzu teknikoek proposamen horien bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertuko dute, eta proiektu bihurtuko dituzte beharrezko baldintza guztiak betetzen dituzten proposamenak; azkenik, Udalak jakinaraziko du zein den hautatutako proiektuen behin betiko zerrenda.

### Aurrekontu handiagoa

Aipatzekoa da, halaber, berrikuntza gisa, Udalak aurreko ekitaldian baino diru kopuru handiagoa erabiliko duela, eta guztira 200.000 eurokoa izango dela proiektuak gauzatzeko guztizko aurrekontua. Horrez gainera, ekitaldi honetako aurrekontuekin ezin finantza litezkeen proiektuak intereskotzat hartuko dira, eta 2019rako aurrekontuetako herritarren partaidetza prozesura eramango dira.



## Hobekuntzak Ikurriñaren parketik Sobalbadun multzora iristeko bidean

Udalak hainbat lan egingo ditu arrapala bat jartzeko Ikurriñaren parketik Sobalbadun multzoko etxetara iristeko. Lan horren bitartez, eremu horretara iristeko, eta zehazki 21. blokerara iristeko, herritarrek izan ohi dituzten zailtasunak konpondu nahi izan ditu. Orain arte, herritarrek eskailera batzuen bitartez baino ezin zuten bertara iritsi, eta horrek asko zailtzen zituen mugitzea eta batetik bestera joateko aukerak. Lan horiek egiteko aurrekontu orokorra 24.453,06 eurokoa da guztira.

Arrapala moldatzeko lanak faseka egingo dira, ahalik eta gutxien izan daitezten inguru horretako herritarrentzako eta oinezkoentzako kalteak; gaur egun lorategiak diren guneean esku hartuko da, sarbide egokia eraikitzeko behar beste eremu eduki ahal izateko, eta, ondoren, berriro ere egokituko da eremua. Horrez gainera, eremu horretan baranda bat jarriko da, bai eta LED argi puntu bat ere. Gaur egun indarrean den irisgarritasun araudia beteko du sarrera berri horrek.



## **LED argiak Lauretan eta Giba Fregenal kalean**

Muskizko Udalak aldatu egingo du Laureta etxe-multzoko eta Giba Fregenal kalerako igoerako argiteria, eta LED argiak jarriko ditu oraingoen ordean. 71.288,18 euroko inbertsio orokorraren bitartez, Muskizko Udalak hobekuntza lanak egingo ditu bi argiteria lerro horietan.



## **Udalerriko oinezkoen pasabideen azterketa**

Udalerriko oinezkoentzako pasabideen azterketa egingo du Udalak. Azterketa hori lagungarria izango da pasabide guztiek beharrezko baldintzak betetzen dituzten eta oinezkoen bideragarritasuna egokia den jakiteko. Irisgarritasun baldintzak betetzen ez dituzten pasabideei dagokienez, zehazki aztertuko du Udalak zergatik ez diren irisgarriak eta kasu bakoitzean zer irtenbide eman dagokiokeen.



## **La Sequilla bidearen birgaitzea**

Muskizko Udalak La Sequilla auzorako bidea birgaitzeko lanen esleipena onartu du, gaur egun oso hondatuta baitago. 47.375,02 euroko inbertsio orokorraren bitartez, bidea hobetzeko lanak egingo ditu Muskizko Udalak, hain zuzen ere, zolatzeko lanak eta kanalizazio lanak egingo ditu.

## **Ikastolak teilatua edukiko du kirol pistetako batean**

Muskizko Udalak, Ikastolaren eskaerei erantzunez, teilatua egingo du 2018ko udan ikastetxeko kirol pistetako batean, 150.000 eta 200.000 euro bitarteko kostuarekin. Neurri horren bitartez, ikasleek eguraldiaren gorabeheretatik babestuta jolasteko aukera izango dute, eta aisiarako eta jarduerak askotarako gune bat edukiko dute hurrengo ikasturtean.



Orain dela gutxi, Udalak pistaren azterketa geotekniko bat egin du, teilatua proiektua egiteko. Proiektu horren kostua 20.000 eurokoa izango da guztira. Teilatua egiturak ikastetxearen ildo arkitektonikoari jarraituko dio, eta, horrez gainera, argiak jarriko dira eta epe luzeko eraginkortasunari emango zaio lehentasuna, eraikuntza iraunkor bat eginez. Udal arduradunen aurreikuspenen arabera, ikasturte hasierarako bukatuko dira lanak; era horretara, ez dira eskolako ohiko jarduerak etengo.



## **Kiroldegiko jokalekuaren zoladura berrituko da**

Udalak udal kiroldegiko jokalekuaren zoladura aldatzea erabaki du, eta 100.000 euroko aurrekontua edukiko du guztira. Muskizko kiroldegiko jokalekuaren zoladura gogorra eta zarpiatua da, eta nahiko hondatuta dago. Hori dela eta, Udalari egokia iruditu zaio zoladura aldatzea, erabiltzaileen erabilera hobetzeko helburuarekin.

Honako hauek izango dira egingo diren lanak: zoladura aldatuko da, eta kolpeei eta erreboteei erresistentzia handiagoa izango dien zoladura jarriko da; horrez gainera, errazago garbituko den eta iraupen handiagoa edukiko duen zoladura jarriko da. Zoladuraz gainera, leuntze handiagoko koltxoneta bat jarriko da rokadromoaren eremuan.

## Antonio Trueba eta Santeliceseko zirkulazioa arautzeko neurriak

**B**I-2701 errepidea Antonio Trueba hiribidetik eta Santelices auzotik igarotzen den tartean trafikoaren inguruan egindako azterketan azaldutako neurriak ezartzeko eskatu dio Muskizko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari.

Ekimen horiek bat egiten dute orain dela lau urte Santelices auzoaren sarreran, Bilborako norabidean, jarritako semaforoa jarri zenean gauzatutako ekimenarekin. Errepide tarte hori ikusgaitasun eskasako bihurgune itxi batekin dago lotuta, eta, hori kontuan hartuta, semaforo bat jarriko da, sakagailuarekin, oinezkoen pasabide bat dagoen zuzengunearen lehenengo partean; pasabide horrek Cendeja auzoarekin lotzen du, eta bertan dago igogailu panoramikoa. Horregatik, gune horretan semaforo bat eta seinale bertikalak jarrita, automobilak astiroago ibiliko dira merkataritza eta etxebizitza ugariako tarte horretatik igarotzen direnean.

Hartu beharreko bigarren neurria zuzengunearen beste tarte batean dagoen

oinezkoen pasabidearena izango da; bihurgune baten alboan dago eta jarraipena ematen dio Giba Fregenal kaleari. Pasabide horretan, ez dago espaloirik aldeetako batean, Giba iturria dagoen lekuan, eta bestea ez da zuzenean lotzen errepideari atxikitako oinezkoen espaloiarekin. Horregatik, Santelices auzoan dagoen espaloia beharrezko proposatzen du Udalak, oinezkoen pasabidea jartzeko eta oinezkoentzako itxaron gune bat uzteko, dagozkion seinaleak jartzeaz gainera.



## Hezkuntza afektibo-sexualaren zerbitzua ikasleentzat

Muskizko Udalak Lehen eta Bigarren Hezkuntzan Hezkuntza afektibo-sexualari buruzko Udal Programarekin jarraitzea erabaki du. Herriko ikastetxeek oso balorazio positiboa egin dute zerbitzuari buruz, oinarriko hezkuntza sexualari, aniztasun sexualari eta berdintasunari buruzko programei esker. Urteko 8.800 euroko zenbatekoarekin, Desirak-Sexologia eta Generoko Zerbitzua enpresa arduratuko da zerbitzuaren kudeaketaz.

Muskizko Udalaren hezkuntza afektibo-sexualerako Programan 536 ikasle inguruk hartu dute parte, guztira. Honako helburu hauek izan ditu programak: sexualitatea aniztasunerako balio positibotzat gizartearatzea, kontzeptua zabaltzea eta finkatzea, LGTB errealitateak ikusgai bihurtzea eta normalizatzea, autoestimua bultzatzea eta familia giroaren komunikazioa bultzatzea, errespetua, berdintasuna eta genero berdintasuna bultzatzea eta jarrera sexualak murriztea.

## Edukiontzi berriak mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat

Muskizko Udalak zaborren 21 edukiontzi berri ditu, mugikortasun arazoak dituzten pertsonei egokituta. Hondakinak eramateko zerbitzua esleituta duen enpresarekin hitzartutakoari jarraituz, Udalak egindako azken hobekuntzetako bat izan da 21 edukiontzi berri jartzea mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat egokituta. Mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat sistema bat ezarriko da, halako eran non hondakinak sartzeko ahoa ohi baino beherago egongo den, lurretik 90 zentimetro ingurura. Era horretara, errazago sartuko dira zaborrak edukiontzian.



## Hobekuntzak udal kiroldegiko sarreran

Udal kiroldegiko gaur egungo sarrera-kontrola berritu egingo da, instalazioen erabiltzaileak azkarrago eta erosoago sar daitezzen. 21.562,50 euroko aurrekontua izango da horretarako. Gaur egungo tornuetan, hurbiltasunezko irakurketa sistema berri bat jarriko da; sistema horren bitartez, txartel berria tornuen gaineko sarrera eta irteera irakurgailuetara hurbiltze hutsarekin sartu ahal izango da bertara. Era horretara, murriztu egingo da sartzeko denbora, bai eta tornuen osagai mekanikoen matxurak ere; horrez gainera, osagai horiek gehiago iraungo dute. Muskizko kiroldegia erabiltzaileek doan edukiko dute txartel berria.

## Elkarrizketa



### Muskiz, herri “solidarioa” Mexikorekin

Muskizek bere alderdi solidarioena erakutsi du herriko emakume talde bati esker; izan ere, euren harri-koskorra ekarri ahal izan dute, Mexikon aurreko irailean gertatutako hondamendi naturalean laguntzeko. Emakume horietako batzuek lotura familiarrak eta jaiotzetikoak dituzte kausa horrekin, eta beste batzuek, berriz, herriko Emakumeen Elkarteko kide izanik, laguntzeko eta solidario izateko borondatea adierazi dute.

**G/ Paula Ortiz, Muskizko bizilaguna eta mexikarra izan zen ekimen honen bultzatzaileetako bat. Nola sortu zen?**

*E/ Ideia familian sortu zen; pentsatu genuen ezin genuela geldirik egon gure herrialdean gertatutako lurrikararen ondoren eta zerbaitegin behar genuela, nahiz eta milaka kilometrorara egon. Gainera, Mexikoko gure senideak bilketa zentroetan ari ziren laguntzen, edo*

*salbamendu lanetan ari zirenei laguntzen... Horregatik pentsatu genuen globo solidarioak salduko genituela, eta, Gurutze Gorriaren bitartez, jasotako dirua bidaliko genuela; baina, lehenik, forma eman behar zitzaion ekimenari, eta, orduan, Muskizko Emakumeen Elkartera joan ginen, noranahikoak direlako eta beti daudelako laguntzeko prest.*

**G/ Nola lagundu zizueten?**

*E/ Behar genuen laguntza guztia eman ziguten, bai eta Ehiza eta Arrantza Azokaren antolatzaileek eta Muskizko Udalak ere, stand bat utzi baitziguten azokan gure globo solidarioak saltzeko, eta Ortuellako emakume talde batek paparreko orratz batzuk eman zizkigun, doan, diru gehiago lortzeko, ekimenaren berri eduki eta gero.*

**G/ Zenbat diru bildu zenuten?**

*E/ Beraien laguntza eman ziguten lagunei,*

*herritarrei eta bisitariei esker, 463,50 euro jaso ahal izan genituen; horien erdia dohaintzak izan ziren, eta gainerakoa globoak eta orratzak saltzetik lortu zen. Jasotako diru guztia Gurutze Gorriak kausa horretarako zabaldutako kontura bideratu zen. Ekimen horrek erakusten du jendearen solidartateak eta Muskizko herriarenak ez duela ez mugarik ez herritartasunik.*

**G/ Ekimenean Muskizko Emakumeen Elkarteak parte hartu zuen. Elkarteko lehendakari Pili Dorriok eman digu horren berri:**

*R/ Gurekin harremanetan jarri zirenean ez genuen laguntzeko zalantzarik izan. Muskizko Emakumeen Elkarteak beti parte hartu du herrian egin diren ekimen sozialetan. Gure ekarpena txikia izan bazen ere, lagundu egin genien azokan, salmenta solidarioan, eta oso pozgarria izan zen emaitza.*



### Muskiz auzoaren inguruko garbitegiaren ingurune naturala lehengoratzeko

Hasi dira Muskiz auzoko garbitegiaren ingurune naturala lehengoratzeko eta antolatzeko lanak, 45.000 euro inguruko zenbatekoarekin. Honako hauek izango dira egingo diren lehengoratzeko lanak: lursaila egokitu egingo da, harlangaitzeko hormak leheneratuko dira, eta argiteria eta ur hornidura sare barri bat jarriko da, garbitegiaren funtzionaltasuna berreskuratzeko. Horrez gainera, dagoen bidea zabalduko da, zoladura berde baten bitartez, eta plaza bat egingo da, hiri-altzariekin, auzotarrek erabil dezaten.



### Muskizko ikasleek indarkeria matxistaren kontrako martxa bat egin dute

Muskizko ikasleek martxa batean hartu zuten parte, emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna zela-eta, azaroaren 25ean. Martxa IES MUSKIZ BHI ikastetxeak antolatu zuen, baina gainerako ikastetxeek ere hartu zuten parte (Cantarrana eta Ikastola); Muskizko kaleetan barrena ibili ziren “Berdintasunaren bidea pausoz pauso” lelopean, udaletxera arteko bidean. Udalean Borja Liaño alkateak eta erakundeetako ordezkariak egin zieten harrera, borroka horretan erakutsitako konpromisoa eta egindako lana eskertzeko. Ikasleek ibilbidearekin jarraitu zuten meatzari herriko kaleetan zehar, ikasleek beraiek antolatutako batukada baten doinuarekin.